



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

77. INFORMAZIO BULETINA

> 2013ko Apirila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadik EB-27ko batez bestekoa gainditu du Europa 2020ko zortzi adierazletatik bostetan

2010ean Europako Batzordeak onartutako Europako Estrategia 2020 da oraingo hamarkadarako agenda komuna. Lehentasuna ematen dio hazkunde adimendunari, iraunkorrari eta integratzaileari Europako ekonomiako egitura mailako ahuleziak gainditzeko, lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatu sozial iraunkorreko ekonomiaren oinarriak ezartzeko modu gisa.

Europako Estrategia 2020ko helburuen jarraipena zortzi adierazle nagusiren bidez egin ohi da. Horrekin lotuta, Eustatek argitaratutako txostenaren arabera, Euskadik adierazle horietako bostetan balio hobeak lortu ditu Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta. Zehazki, Euskadik EB-27ko batez bestekoa gainditu du honako haueetan: barneko gastua I+G arloan, lehen energiaren kontsumoa, garaia baino lehen eskola utzi dutenen tasa, goi mailako hezkuntza maila eta txirotasun- edo bazterkeria-arriskuan dauden herritarrak.

Aldiz, Euskadik Europako batez bestekoaren azpitik dauden balioak ditu enplegu-tasan, negutegi-efektua duten gasen igorpenean eta energia berriztagarrien kuotan.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elementos/ele0010400/tema_263/tipo_1/not0010440_c.html#axzz2THBGTV2S



> Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza Gipuzkoan eta Europar Batasunean

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren inguruko adierazle gakoak Gipuzkoan eta Europar Batasunean dokumentua Gipuzkoako eta Europar Batasuneko bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko adierazleen konparaketa bat egiten du.

Zehazki, aztertu diren hiru adierazleak honako hauek dira:

- Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriak bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak egiten ditu maiz. Ehuneko hau Europar Batasuneko datua baino 4 puntu portzentaje altuagoa da.
- Gipuzkoako eskola-uzte goiztiarraren tasa % 7,8koa da, Batasuneko batz bestekoa baino baxuagoa (% 12,9a).
- Azken urteetan goi mailako hezkuntza maila Gipuzkoan zein Europar Batasunean hazi egin da, hazkunde hori Gipuzkoako lurraldean nabarmenagoa bada ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak argitaratu berri duen dokumentu hau Gipuzkoako bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren inguruko adierazleak serieko laugarren dokumentua da.

Informazio gehiago:

http://ikasmina.net/intranet/uploads/adjuntos/productos/418_2_DOKAdierazleak4_GipuzkoetaEuropaadierazleak.pdf

> Euskadiko FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea egin dute

Maiatzaren 14an egin dute Zornotzan Euskadiko FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea. Bilera horren helburu nagusia 2012. urteari dagokion betearazpen-txostena onartzea izan da eta Europako Batzordeko, Eusko Jaurlaritzako, Estatuko Administrazio nagusiko eta hiru foru-aldundietako ordezkariak hartu dute parte bertan.

Onartutako txostenaren arabera, Euskadi osoan, 2007-2012 aldirako aurrez ikusitako jardueren betearazpen maila % 62koa ziurtatuta dago. Egindako gastua, ordea, % 84koa izan da. Gipuzkoaren kasuan, aldiz, ziurtatutako betearazpen maila % 30ekoa izan da, % 62ra igoz egindako gastuari dagokionez.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Jarraipen Batzordeari jakinarazi dio beste bi proiektu gehitu dituela: lehenengo eta behin, foru-administrazioetan espediente elektronikoa normalizatzearekin lotutako proiektua gehitu dute; eta bigarrenik, IKUS proiektua aipatu dute. Horren bidez, informatikako sistema integrala ezarriko dute zergen ikuskapena eta ikuskapen fiskala hobeto kudeatzeko.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/rf51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/informe-2012-POPV-FEDER-2007-2013.pdf

<https://dl.dropboxusercontent.com/u/56748384/POPV%20FEDER%20COMITE%20GRUPO.JPG>



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak bi proiektu berri aurkeztu ditu FEDER 2007-2013 Programa Operatiboa kofinantzatzeko**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantzak Departamentuak ordezkaturik, maiatzaren 14an Euskadiko FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordeak egindako bileran jakinarazi zuen beste bi proiektu txertatu dituela. Proiektu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako gainerako ekimenekin lotu behar ditugu. FEDER Europako kofinantzaketa jaso dute.

Bi proiektu berri horiek FEDER 2007-2013 programako 1.13 kategoriaren baitan sartu behar ditugu (Herritarrentzako zerbitzuak eta aplikazioak). Bi jarduera horien guztizko gastua 3.796.147 eurokoa da. Honako hauek dira:

- **Espediente elektronikoaren normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren prozeduretan.** Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak normalizazioko helburu orokorrak estaltzeaz gain, proiektuaren helburu nagusia "herritarrak bere espedientea modu elektronikoan ikusteko/kontsultatzeko duen eskubidea" betetzea da. (Zerbitzu publikoetarako herritarren sarbide elektronikoa izateko legea). Gainera, proiektu hori aplikatzeak beste erakunde/administrazio batzuekin espedienteak trukitzea ahalbidetuko du.
- **IKUS, ikuskapen fiskala eta zerga-ikuskapenaren kudeaketa hobetzeko informatikako sistema integrala.** Proiektuaren helburu nagusia ikuskapena kudeatzeko sistema integrala egitea eta ezartzea da. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere funtzioak eragingarritasun handiagoz bete ahal izango ditu informazioaren teknologien erabilera aurreratuan oinarrituta, punta-puntakoa eta lehiakorra den administrazio elektronikoaren ereduaren baitan.

Hori dela eta, FEDER Europako kofinantzaketa jasotako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako ekimenak honako proiektu hauek osatuko dituzte: Ikerkuntza Estrategikoko proiektuak (Biodonostia, iSare, Erlea eta ikerkuntzako eta inbertsio zientifiko-teknologikoko lanak Gipuzkoan), ekintzailatza bultzatzea, lurralde eta enpresa mailako berrikuntza, Gobernu elektronikoa (i-gipuzkoa), energiaren iraunkortasuna bultzatzea (Sarecar, emugi! eta lurraldean energia-iraunkortasuna sustatzeko beste ekimen batzuk) eta Pasaiaiko Badia biziberritzea.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/esp/proy_feder.asp



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



> 2013ko Apirila

> **Europak aurrera jarraitzen du desoreka makroekonomikoak zuzentzeko, baina estatuen artean alde handiak daude oraindik**

Europako Batzardeak hamahiru estatuetako desoreka makroekonomikoen inguruan egindako berrikusketaren zehatzeko ondorioek agerian utzi dute Europan doiketa makroekonomikoa egin nahi dutela, baina doiketetan hori ezberdina dela kide diren estatuen artean haien ezaugarriari eta erritmoari dagokienez.

Berrikusketek agerian utzi dute kontu korranteagatik balantzako defizitak murriztu direla, lan-kostu bateratuak elkartu egin direla eta etxebizitzaren gehiegizko prezioan zuzenketak eta sektore pribatuko zordunetaren murrizketak gertatu direla.

Dena den, kasu gehienetan, doiketa oraindik amaitu gabe dago eta ez da nahikoa lortutako murrizketa. Hori dela eta, egitura mailako erreformekin aurrera jarraitzeko eskatu dute. Hala eta guztiz ere, erronka horiek gainditzeak eragina izango du zorpetutako ekonomiek hazteko eta lehiatzeko duten gaitasunean, finantza-egonkortasuna bermatzeko garaian eta, batez ere, langabezia murriztu ahal izateko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/occasional_paper/2013/pdf/com%282013%29_199_final_en.pdf

> **Abian da Europan gobernantza fiskal ona lortzeko plataforma**

Europako Batzardeak abian jarri duen gobernantza fiskal onerako plataforma da Europan zerga mailako ihesaren eta saihaspenaren aurkako ekintza-planaren baitako ekimenetako bat.

Hori dela eta, plataforma berri honen helburua kide diren estatuak zerga-plangintza oldarkorrari (zerga-zorra gutxitu ahal izateko, bi zerga-sistemaren edo gehiagoren arteko desadostasunak edo zerga-sistema baten alderdi teknikoak aprobetxatzea da horren oinarria) aurre egiteko garaian abian jartzen dituzten neurriak eta aurrerapenak gainbegiratzea eta paradisu fiskalak zigortzea izango da, Batzardeak joan den urtearen amaieran egindako gomendioei jarraituz.

Batzordearen asmoa plataforma era askotako interesdunek osatzea da: zerga-administrazioek, Europako Parlamentuak, enpresek, unibertsitateek, gobernuz kanpoko erakundeek eta beste elkarte batzuek. Helburu horrekin, parte hartuko duten erakundeak hautatzeko eskaeren deialdia ireki dute. Hiru urteko agintaldirako aukeratuko dituzte eta aldi hori amaitzean, onartutako eskaera berriaren bidez luzatu ahal izango da.

Plataformaren lehen bilera ekainaren 10ean egitea aurrez ikusi dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/tax_fraud_evasion/index_en.htm

http://ec.europa.eu/taxation_customs/resources/documents/taxation/tax_fraud_evasion/platform_call-applications_en.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> Kohesio-politikak krisia gainditzen eta hazkundera lortzen egiten ari den ekarpena nabarmendu du Europar Batasunak bere 2013ko txosten estrategikoan

Europako Batzardeak argitaratutako 2013ko txosten estrategikoak, 2007-2013 kohesio-politiken programen aplikazioari buruzkoak, kide diren Estatuetatik eskuratutako informazioa bildu du eta Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsaren, Europako Gizarte Funtsaren eta Kohesio Funtsaren testuinguruan herrialde horietan garatutako inbertsioek emaitzak eman dituztela egiaztatu dute. Emaitzak batez ere herritarrentzako hobekuntza eta garapenaren arloan izan dira. Horrez gain, krisia gainditzen ere lagundu dutela egiaztatu dute txostenean.

Europa 2020 Estrategiaren helburuak betetzeari dagokionez herrialde bakoitzak egindako aurrerapenak ere aipatu dituzte txostenean. Gainera, Batzardeak inbertsiorako hainbat arlo identifikatu ditu; horietan 2007an eta 2013an konfinantzatzutako proiektuen aukeraketa eta exekuzioa bizkortzeko neurriak hartu beharko dira ezarritako helburuak lortu ahal izateko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/how/policy/strategic_report_en.cfm#sr2013

> **ELKARREKIN** izeneko programako laguntzen beste deialdi bat, Gipuzkoako udalerrien eta beste eskualde batzuetako hirien arteko senidetzea bultzatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kanpo Harremanen eta Turismoko Zuzendaritza Nagusiak **ELKARREKIN** izeneko laguntzen programako beste deialdi bat onartu du. Horren helburua Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta tokiko erakundeen, eta beste eskualde eta/edo herrialde batzuetako udalerrien eta hirien arteko trukeko senidetzeak bultzatzea da.

ELKARREKIN programak Gipuzkoako udalerriak bultzatu eta lagundu nahi ditu udalerrietako interes sozialei, kulturelei eta ekonomikoei nahiz interes edo lotura komunak dituzten beste udalerrri batzuekin dituzten harremanei zuzenean mesede egiten dieten jarduerak egin ditzaten.

ELKARREKIN programaren 2012ko memorian ikus daitekeenez, azken urtean senidetzeko sei ekimen babestu dituzte guztira. Zehazki, honako hauek: Antzuola – Aiherra (Nafarroa Beherea), Azpeitia – Hazparne (Lapurdi), Deba-Kanbo (Lapurdi), Errenteria - Schorndorf (Alemania), Idiazabalgo Udalak sortutako jatorri-deitura duten udalerrien Europako ibilbidea, eta Zarautz eta Pontarlier (Frantzia) udalerrien arteko senidetzea Lizardi Institutuko (Zarautz) eta Lyceé Xavier Marmier (Pontarlier) ikastetxeko ikasleen trukearen bidez.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2013/04/26/c1304086.htm>

<http://www.kanpoharremanak.net/descargas/Elkarrekin%20Memo%202012%20%28END%29.pdf>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Apirila

> **"Gehigarritasunari" buruzko Batzordearen txostenak agerian utzi du egungo egoeran kohesio-politikak garrantzia duela**

"Gehigarritasuna" Kohesio Politikaren oinarritzko printzipioa da eta horren helburua Europar Batasuneko inbertsioek estatu mailan duten balio erantsia bermatzea da. Horretarako, kasu guztietan, ziurtatu beharra dago Egitura Funtsek kide den estatu bateko balioak den gastu publikoa osatzen dutela, eta ez hura ordezkatu.

2007-2013 aldiko Europar Batasuneko Kohesio Politikako programetako "Gehigarritasuneko" emaitzen inguruan Batzordeak egindako tarteko egiaztapenetik hiru ondorio nagusi atera ditzakegu:

- 2007-2010 aldian eskualde bateratuetako egitura-gastu nazionalaren maila gehitua aldeztu aurretik ezarritako maila baino % 7 handiagoa izan zen. Kide diren estatu jakin batzuetan gastu publikoa handitu egin delako gertatu da hori. Batez ere, krisiaren eragina arintzeko gobernu batzuek egindako ahalegin kontraziklikoa garatu izanagatik gertatu da hori.
- Bestalde, kide diren hamar estatuk 2007-2013ko aldirako "Gehigarritasuneko" kontusailaren egoera murrizteko eskatu zuten, eta onartu egin diete eskaera. Gehiengoaren kasuan, abian edo aurrez ikusita zegoen aurrekontu mailako kontsolidazioaren ondorioa izan zen. Aldiz, haietako biren kasuan, aldeztu aurretik egindako azterketaren zuzenketa zen.
- Tarteko egiaztapenak agerian utzi du "Gehigarritasuna" egiaztatzeko egungo metodoan hutsuneak daudela. Hori dela eta, Batzordeak 2014-2020 aldian egiaztapen-prozesua berritzea proposatu du Batasuneko gobernantza ekonomiko berrira egokituta.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0104:FIN:ES:PDF>

> **Emakundek jardunaldia antolatu du eta bertan, besteak beste, Europako funtsak osasun-ikerkuntzan generoaren ikuspegia nola lantzen duten aztertuko dute**

Maiatzaren 28an egingo da Emakumeen Osasunaren aldeko Ekintzaren Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak "Genero-analisisa osasun-ikerketan" izeneko jardunaldia antolatu dute.

Jardunaldian landuko dituzten gaien artean, ikerkuntzari laguntza emateko Europako programak ikuspegi horren alde egiten duten errefortzua aztertuko dute eta helburu nagusia osasun-ikerkuntzan oinarritzekoak diren gaien inguruko hausnarketa egitea izango da generoaren ikuspegitik abiatuta. Genero-berdintasunaren sustapena funtsak arautzen dituen komunitateko araudian jasota dago zeharkako printzipio gisa eta horrek osasun-ikerkuntzan berdintasuna bultzatzeko laguntza ere eman beharko luke.

Informazio gehiago:

<http://www.euskadi.net/noticia/2013/emakunde-organiza-la-jornada-el-analisis-del-genero-en-la-investigacion-en-salud/r33-2288/es/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Azpiegitura berdeetako inbertsiorako Europako estrategia berria

Europako Batzardeak azpiegitura berdeen erabilera eta inbertsioa bultzatzera zuzendutako estrategia berria aurkeztu du. Horren helburua prozesu naturalen balorizazioa kide diren estatuetakoko lurralde mailako jardueraren eta antolamenduaren zati izatea bermatzea da.

Batzordearen ustez, azpiegitura berdeetan egindako inbertsioak (parkeak, hezeguneak, berdeguneak eta/edo korridore naturalak...), naturarako eta ingurumen-iraunkortasunerako inbertsio ona izateaz gain, ekonomiarako eta enplegua sortzeko errendimendu handiak sortuko ditu.

Azpiegitura berdeen arloko inbertsioko Europako estrategia berria hurrengo jarduera-esparruetan oinarrituko da:

- Esparru guztietan azpiegitura berdeak bultzatzea (nekazaritza, basogintza, natura, ura, itsasoa eta arrantza, eskualde-politika eta kohesio arlokoa, klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea, garraioa, energia, hondamendien prebentzioa eta lurraldearen erabilera).
- Ikerkuntza eta datuak hobetzen ditu ezagutzen oinarria sendotuz eta azpiegitura berdeei laguntza emateko teknologia berritzaileak bultzatuz.
- Azpiegitura berdeen arloko proiektuetara bideratutako finantzaketara sarbidea erraztea (Inbertsioen Europako Bankuarekin elkarlanean).
- Batasunean azpiegitura berdeen proiektuei laguntza ematea (Europa mailako azpiegitura berdeen sarea sortzea).

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/environment/nature/ecosystems/docs/green_infrastructures/1_EN_ACT_part1_v5.pdf

<http://ec.europa.eu/environment/nature/ecosystems/>



> Batzordeak kide diren estatu guztietan administrazioko izapidetzeak murriztearen alde egin du

Europako Batzordeak herritarrei eta enpresei egindako administrazioko eskakizunak modu drastikoan murriztea proposatu du. Besteak beste, Batasuneko kide den beste estatu batean dokumentu publikoak aitortzeko gaur egun eskatzen dituzten zigilu burokratikoak kentzea proposatu du ("apostilla" deitzen zaie). Dokumentuen egiazkotasuna ziurtatzeko administrazioko beste eskakizun batzuk ere kentzea proposatu dute. Horrez gain, EBko hizkuntza ofizialetan argitaratutako inprimaki eleaniztunak erabiltzea proposatu dute kostu handiko zinpeko itzulpenak ez erabili behar izateko.

Urtero, izapidetze burokratikoak eskatzen dituzte Europar Batasunean 1,4 milioi dokumentu baino gehiago aitortzeko. Eskakizun horiek guztiak ezeztatzeak 330 milioi euro arte aurreztea ekarriko luke.

Araudiaren proposamenak honako hauen inguruko dokumentuetan izango luke eragika: izena, ezkontza, jaiotza, seme-alabatasuna, adopzioa, heriotza, egoitza, herritartasuna, nazionalitatea, higiezinen jabetza, nortasun juridikoa, jabetza intelektualak eta eskubide penalak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/justice/newsroom/civil/news/130424_en.htm

> Mugaz gaindiko lan-mugigarritasuna hobetzeko arauak

Europako Batzordeak proposamen berria egin du langileek zirkulazio librerako dituzten eskubideen aplikazioa hobetzeko asmoz. Horren helburua oztupoak gainditzea da, eta nazionalitatearen eraginez sortutako langileen aurkako diskriminazioa ekiditea. Horretarako, neurri berriak proposatu dituzte.

Batzordeak egindako proposamenaren arabera, eta beste neurri batzuen artean, kide diren estatuak nazio mailako harremanetarako puntuak sortu beharko dituzte. Horietan, informazioa, laguntza eta orientazioa eskainiko dituzte Europar Batasuneko langile migratzaileek eta enplegu-emaleek beren eskubideen inguruko informazio hobe izan dezaten.

Informazio gehiago:

<http://www.ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=10017&langId=en>



> **Gipuzkoak Galileo Masterren, geolokalizazioko ideiak eta proiektuak saritzen dituen Europako lehiaketan, parte hartuko du**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin batera, Galileo izeneko Europako satelitearen (AEBn garatutako GPSaren Europako alternatiba da) bidezko geolokalizazioko proiektuen eta ideien Galileo Master lehiaketako 2013ko eskualde mailako deialdia inauguratu du.

Gipuzkoak laugarren urtez jarrian hartuko du parte lehiaketa honetan eta horren helburua nabigazioko eta lokalizazioko aplikazioetako teknologien ideiak eta proiektuak jasotzea da, gero Europako lehiaketan parte har dezaten eta, ondoren, patentatu, garatu eta merkaturatu ditzaten. Gipuzkoak Europako beste 23 eskualde eta herrialderekin batera hartuko du parte ekimen honetan eta lokalizazioan oinarritutako nabigazioko teknologien eta aplikazioen arloko nazioarteko adituen komunitatea bilduko du.

Parte hartuko duen eskualde bakoitzak irabazleei sari espezifikoak eskainiko die. Gipuzkoako fasean irabazle suertatu direnen kasuan, Bic Gipuzkoa Berrilan izeneko sehaskan urtebeteko egonaldia eskuratuko dute sari gisa eta Ekintzaile/Txekintek ekintzaile berritzaileen laguntzarako programara sarbidea izango dute. Denbora-tarte horretan, proiektu osorako tutoretza aditua, aholkularitza eta gainbegiraketa izango dute (negozio-planaren diseinutik hasi eta jabetza intelektualaren babesaren inguruko aholkularitzara arte).

Informazio gehiago:

<http://www.galileo-masters-gipuzkoa.net/>

<http://www.galileo-masters.eu/>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> 2012 Europar Batasunaren jarduerari buruzko txosten orokorra

Urtero argitaratzen du Txosten Orokorra Europako Batzordeak eta EBren ekimen nagusien eta urte osoko lorpenen berri ematen du. Zehazki, Europar Batasunak 2012an izan dituen lorpen eta ekimen nagusien inguruko ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Txostena sei kapitulutan banatuta dago:

- Batasun politikorantz.
- Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoa eta finantza-egonkortasuna kontsolidatzea.
- Hazkunde handiagoa.
- Europar Batasuneko herritarrengan arreta handiagoa jartzea.
- Munduan sendoagoa den Europar Batasuna.
- Europako erakunde, organo eta elkarteen lana.

Informazio gehiago:

http://bookshop.europa.eu/es/informe-general-sobre-la-actividad-de-la-uni-n-europea-2012-pbNAAD13001/downloads/NA-AD-13-001-ES-N/NAAD13001ESN_002.pdf?FileName=NAAD13001ESN_002.pdf&SKU=NAAD13001ESN_PDF&CatalogueNumber=NA-AD-13-001-ES-N



> Europar Batasuneko zerga arloko joerak, 2013

Eurostatek egindako urteko txosten honek Europar Batasuneko kide diren estatuetako eta Islandiako eta Norvegiako zerga-sistemen ekonomia eta estatistika mailako azterketa zehatza jasotzen du. Datuak estatistikako testuinguru bateratuaren baitan aurkezten dira. Hori dela eta, parametro alderagarrien bidez, nazio mailako zerga-sistema ugariak balora daitezke. Herrialde bakoitzerako, txostenak nazio mailako zerga-sistemaren ikuspegi orokorra, aurrez ikusitako joerak eta zerga-politikan jasandako azken aldaketak biltzen ditu.

Txosteneko emaitzen arabera, Batasuneko BPGrekiko (zerga-presioa) sarreraren garrantzia puntu erdi bat handitu zen 2011n aurreko urteko datuekin alderatuta. Horren ondorioz, % 38,8koa izan da. Espainian, zerga-kargen eragina BPGren % 31,4koa izan zen 2011n. Zergen bilketa kontuan hartuta, horrek BPGn ondorio handiena duteneko herrialdeak honako hauek izan dira: Danimarka (% 48), Suedia (% 44), Belgika (% 44) eta Frantzia (% 44).

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, Espainia da PFEZ handiena duten Europar Batasuneko herrialdeetako bat. Espainian aplikagarria den gehieneko tasa % 52koa da; hau da, Herbeheretako tasa bera du eta honako hauek bakarrik ditu aurretik: Suedia (% 57), Danimarka (% 56), Belgika (% 53) eta Portugal (% 53). Aldiz, EB-27ko batez bestekoa % 38koa da. PFEZ baxuenak dituzten Europako estatuak honako hauek dira: Bulgaria (% 10), Lituania (% 15), Hungaria eta Errumania (% 16koa da bietan), eta Eslovakia (% 19).

Espainiako sozietateen gaineko zerga ere (% 30) Batasuneko altuenetako bat da eta, beste behin, komunitateko batez bestekoa gainditzen du (% 23,5) eta tasa altuagoko herrialdeak honako hauek bakarrik dira: Frantzia (% 36), Malta (% 35), Belgika (% 34) eta Portugal (% 32). Aldiz, tasa baxuenak Bulgaria eta Ziprekoak (% 10) eta Irlandakoak (% 13) dira.

Espainiako BEZa (% 21), aldiz, komunitateko batez bestekoa baino 0,3 puntu txikiagoa da (% 21,3), baina EB-27ko batez bestekoa baino 0,6 puntu handiagoa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/gen_info/economic_analysis/tax_structures/index_en.htm

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-29042013-CP/EN/2-29042013-CP-EN.PDF



> Komunitateen arteko senidetzea (*Panorama* aldizkaria)

Europako Batasuneko Eskualde mailako Politikarako zuzendaritzak argitaratutako Panorama aldizkariaren azken aleak Europako hazkundera leheneratzeko kohesio-politikak betetzen duen rolaren inguruko hausnarketa jasotzen du.

Besteak beste, honako gai hauei buruzko artikuluak biltzen ditu: hirien oinarriko rola, Europako ekonomiaren eragileak; eskualde berritzaileei emandako RegioStar sariak, hiriko garapeneko jardunbide gomendatueneren datu-basea; eta EBko PEACE programa, Ipar Irlandan eta Irlandako mugako eskualdean banatuta dauden komunitateak adiskidetzeko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag45/mag45_en.pdf

> Eurohiriaren errealitatearen eta etorkizunaren diagnostikoa

Baiona, Angelu, Biarritz, Bokale eta Bidarte udalerriak partaide diren Agglomération Côte Basque-Adour hiriguneak Euskal Eurohiriari, haren errealitateari eta etorkizunari buruzko monografikoa argitaratu du apirilako aldizkarian.

Dokumentu horretan jasota daude lurraldez eta mugaz gaindiko errealitate hori osatzen duten udalerrri guztien arteko mugaz gaindiko harremanen gako guztiak.

Informazio gehiago:

http://www.agglo-cotebasque.net/uploads/tx_anetpublication/OXD-06_HRv20V2013-0415.pdf